

Globalizazio kapitalistaren kontrako sarea abian da

Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeetako (GGKE) hiruk indarrak batu eta elkartasun sarea sortu dute globalizazio kapitalistari aurre egiteko. Munduaren errealitatearen berri eman eta hura aldatzeko bitartekoak eskaintzea dute xede.

DANIEL UDALAITZ

GARAPENERAKO Gobernuz Kanpoko hiru erakundeek (GGKE) munduko errealitate berria ezagutu eta ezaugarazi nahi dute globalizazio kapitalistaren kontra egiteko. Aztertutako errealitatean eragiteko bitartekoak sortzea da Espainiako Estatu osoan hasi berri den prozesuaren abiapuntua. Bali-teke epe laburrean beste bi GGKE batzea ekimenari eta urtebete barru beste bi. Euskal Herrian ere, epe luzeagoan bada ere, lanean dihardute beste GGKEren bat edo batzuk elkartzeko.

Elkarte berriak Itaca Elkartasun Sarea du izena. Itacaren erreferentzia, Iñaki Markiegi presidentek azaldu duenez, Iliadako “Utopiaren Paradisutik” dator, baita Lluís Llachen abestitik ere. Izen ezaguna eta gogoratzeko erraza jarri gura izan dute, eta beste mundu beharrezko eta posible baten guraria adierazten duena, “oraingoz utopikoa bada ere”. Honako hauek dira elkartetako berriak sortu duten hiru GGKEak: Mundubat euskal taldea (www.ptmmundubat.org), Cooperacciò kataluniarra eta OSPAAAL –Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako Herriekiko Elkartasunerako Erakunde– espainiarra.



OSPAAAL, Cooperacciò eta Mundubat erakundeek bat egin dute oraindik utopia den mundu berri baten alde lan egiteko.

Elkarte berriaren jardueraren esparrua Espainiar Estatuak da, bertako GGKE ezkeriar eta progresisten eragin politikoa “guztiz ahula” dela uste baitute. Erakunde bakoitzak bere subiranotasunari eutsiko dio, baina horren zati bat eta betekizunetako

batzuk elkarte berriari utziko dizkiote.

Hutsunea bete eta osagarriak izatea

Itaca Elkartasun Sarea Elkarte hiru GGKEren emaitza da. Elkarrekin etorkizun global gero eta korapilatsuagoari aurre hartzeko kontzientzia du eta hutsunea bete eta elkarren osagarri izatea da helburua. Eragina izateko, Markiegi esan duenez, honako hauek lortzeko gaitasuna behar da: informazioa, jakintza eta diagnostikoak, proposamenak egitea, erreferentzia sinbolikoak, komunikazioa eta solaskidea izatea.

Baina, horretarako, duten indarra baliatzen ikasi behar dutela ohartarazi du. Eta, gaur, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da gizarte-agenda globalaren ereduaren alde egiteko espazioak sortzea hainbat osagaire-

kin: justizia zabalagoa, aberastasun banaketa, parte-hartze demokratikoa eta giza eskubideak munduan. Munduko buruzagiek bete ez dituzten aginduak gogoratzean ezin dela milioika lagun itxaropenik gabe utzi esan du Markiegi eta denok dugula, neurri

Itaca Elkartasun Sarea

Erakunde kideak

- ✓ Mundubat
- ✓ Cooperacció
- ✓ OSPAAL

Zuzendaritza

Presidentea Iñaki Markiegi
 Presidenteordea.. Antonio Albareda
 Idazkaria Jaime Ballesteros
 Diruzaina Concepción Mensa
 Kideak Jose Miguel Pendás
 eta Jose Perales.

batean behintzat, gauzak aldatzeko ardura. Ekintzaileak batuta, ozenago hitz egin daiteke eta mezua hobeki zabaldu, dela salaketarako, dela erresistentziarako, dela proposamenak egiteko, eta horiek kontuan hartzeko aukera handiagoak egongo dira.

Elkarte berriaren estatutuek honako jardun eremuak jasotzen dituzte: ikerketa eta azterketak, kooperaziorako eta giza ekintzarako estrategiak sortzea, sentsibilizazio eta eragin politikoa, sareetan eta aliantzetan parte hartzea –tokikoetan, estatuetaoetan zein nazioartekoetan–, hedabideak abian jartzea, garapenerako nazioarteko programetan eta kooperazio egitasmoetan elkarrekin jardutea, giza ekintza eta garapenerako hezkuntza, eta sentsibilizazioa, hala iparrean nola hegoan.

GGKE-en barrurantz lan egin

Elkarte berriak GGKEen barrurantz begira ere lan egin nahi du. Horregatik, beharrezkotzat jo du kooperazio-

Zer dira GGKE altermundialistak?

GGKE altermundialistek onartzen dute globalizazioaren fenomenoak aurrera egiten duela etengabe, eta gero eta jarduera gehiagotan duela eragina. Globalizazio horren ezaugarri nagusiak aldatzeko helburua dute: liberalizazio ekonomikoa, Iparraren eta Hegoaren arteko aldeak, gizarte-gehiengoaren baztertzeta eta Estatua gero eta ahulagoa izatea. Horien ordez, hauek bultzatu nahi dituzte: elkartasunaren globalizazioa, Iparraldeko eta Hegoaldeko ardura bateratua pobrezia kontrako borrokan, zerbitzu publikoak zabaltzea, aberastasuna birbanatzea eta gizarte-justizia. GGKE altermundialistek nahi dute, batetik, garapena pertsonen eta herrien eskubidea izatea, eta bestetik, merkataritza-arau berriekin batera, kooperazioa garapen hori posible egingo duen tresna izatea (Bidezko Merkataritza).

Era horretako GGKE altermundialistak progresistak eta ezkertia-

rrak dira; Espainiar Estatuan, oraindik egitura ahula dute eta beste GKE askorekin alderatuta, bestelako estrategiak dituzte. Gizarte-aldaketa globalerako diskurtsoa egin eta hedatzen dute eta koherente izaten saiatzen dira, sare eta aliantza transnasionaletan sartuta. Hala ere, etortzeko dago aldaketa sakonagoa, antolaketan eta kulturean; horren bitartez, erakundeak prestatuko dira estatuan eta nazioartean eragina izango duen lanean parte hartzeko.

GGKE altermundialistak borrokan ari dira oinarritzko gizarte eskubideak unibertsal bihurtzeko. Justizia globalaren alde daude, honako hauek modu multilateralean hartuta: ekonomia, bidezko merkataritza, ekologia, genero berdintasuna, eta parte hartzerako bultzatzen duen demokrazia. Horretarako, protesta eta proposamenak egiten dituzte.

az eta sentsibilizazioaz gogoeta egitea, baita antolaketa eta kultura erduez ere. Hala, zera dio: “Kooperazioa, egitasmoak eta programak gizarte prozesuetan eta lurralde eta herrialde estrategietan txertatzeko, orain arte egindakoaz gogoeta eta eztabaida egin behar da. Hau da, pentsatu eta ebaluatu egin behar da ea gure ekintzak Hegoaldeko herrialdeetan errealitatea benetan aldatzeko baliagarriak diren edo behintzat horretan laguntzen ote duten. Era berean, behar-beharrezkoa da

GGKE-en barruko argi-ilunak ebaluatzea, benetako gizarte betekizun gisa eta herritarrek parte hartzeko leku gisa zein tokitan dauden argitzea eta, halaber, erakundeekiko nolako harremanak dituzten aztertzea”.

Itaca Elkartasun Sarearen ardura-dunak jabetzen dira arlo horretan duten lana ez dela batere erraza. Haien esanetan, ez da badaezpadakoa gogoraraztea indarguneen eta ahulezien arteko oreka zaila dela, eta larritu egin daitekeela kooperazioaren konplexutasuna areagotu ahala. ■



www.lalaerretegia.com

laia
sagardotegia

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
 Tel.: 943 646 309
 info@lalaerretegia.com